

# Mario Angel Marrodani omenaldia da Joseba Gotzonen «Fotopoemak» diskoa

► Hilaren 21ean, Nazioarteko Olerki Egunean, aurkeztuko du bilduma Getxon

Mario Angel Marrodan olerkariari omenaldia egin dio Joseba Gotzonek bere azken diskoan. "Fotopoemak" du izenburu eta poeta unibertsalaren obran murgildu

eta gero sorturiko hamar kanta biltzen ditu. Portugaleteko kantautoreak goi mailako musikariak hartu ditu ondoan lan hau birbiltzeko: Blas Fernandez, Carlos Gra-

cia, Jose Luis Canal, Luis Alberto Requejo, Alvaro Gomez, Iñaki Portilla, Iñaki Renedo eta Lazaro Torralba. "Fotopoemak" Getxon aurkeztuko dute hilaren 21ean.

Izaskun LABEAGA

BILBO

Mario Angel Marrodan Portugaleteko olerkariaren hirurogeita hamar liburu irakurri zituen Joseba Gotzonek haren ekoizpenaren hautapen bat egiteko. Hamar poema aukeratu eta musika jarri dizkie "Fotopoemak" diskorako.


«Bi aspektu izan ditut kontuan: metrika eta gaia», azaldu dio abeslariak GARARI. Maitasunaz, gizarteaz, itsasoaren erromantizismoaz, barruko goietez mintzo da lan hau.

Bilduma freskoa da. Freskotasun hori ematen diote jasotzen dituen estetika desberdinetako kantuek. Hainbat erritmo entzun daitezke: pop kutsuko kantak ("Harriz harri", "Kantu lurterra"), bolero bat ("Maitasun sonettoa"), baladak ("Nire ideala", "Otsaila"), balada-pop ("Olerkari txikiaren leloa", "Elementuak"), swing ("Bi olerki txapelari"), zein pop-jazz ("Fotopoemak", "Nire itsasoa") erritmoak.

## Pianoa da gidaria

Hala ere, ez du nahasketa baten itxurarik. Jose Luis Canalek egin dituen moldakuntzek koherentzia eman diote abesti multzoari. Bere pianoa da, gainera, instrumentuen artean pisurik handiena hartzen duena.

Bandaren gainerako kideei dagokienez, Joseba Gotzonek nabarmendu du gorengo musikariak direla. Blas Fernandezek jotzen du bateria; Carlos Gracia *Tatok* kontrabaxua; Jose Luis Canalek pianoa, organoa eta teklatuak; Luis Alberto Requejok klarineta; Alvaro Gomezek tronboia; Iñaki Portillak tuba; eta Lazaro Torralbak perkusio kubatarra.



Joseba Gotzon, Bilboko erdiguneko kaleetan.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

## GOI MAILAKO MUSIKARIAK

► *Disko honetarako goi mailako musikariak hartu ditu inguruan Joseba Gotzonek: Blas Fernandez, Carlos Gracia «Tato», Jose Luis Canal, Luis Alberto Requejo, Alvaro Gomez, Iñaki Portilla eta Lazaro Torralbarekin grabatu du "Fotopoemak" lana.*

neko emaitzarekin. Diskoa grabatu duenerako zuzeneko hainbat saio emanak zituzten eta estudioa jo orduko argi zuen lortu nahi zuten soinua.

Diskoaren aurkezpen ofiziala Getxo Antzokian egingo dute datorren martxoaren 21ean.

arratsaldeko zortzietan. Emaldi honetan diskoaren grabazioan parte hartu duten musikari guztiak izango dira.

Antzokietan jotzeko piezak dira disko honetakoak. Getxoko ekitaldiaren ostean, Aranda de Ebroko

errezitaldiak. Udazkenarekin batera, antzoki zirkuituari ekin dio taldeak.

Atlantikoaz bestaldera bidaiatzeko proiektua ere badu esku artean Joseba Gotzonek. Argentinara itzultzeko asmoa duela adierazi dio GARARI, data zehazteke badago ere.

Joseba Gotzonek 1984. urtean grabatu zuen bere lehen diskoa, "Gau hotza" izenburukoa. "Inpotentzia" (1985), "Botere zailantakoak" (1987), "Kalapo" (1991), "Made in Ris" (1995), "Noegga, historias y leyendas" (1999) "Nortasuna" (1999) eta